

# Faktura Elektronikoa Factura Electrónica

Osakidetza  
Osatek



## Faktura Elektronikoaren Plataforma

### Web-ataria

---

### Erabiltzailearen esku-liburua

## Aurkibidea:

1. Sarrera .....	4
2. Web-atarirako sarbidea .....	6
3. Atarira fakturak igotzea .....	10
4. Fakturen zerrenda eta fakturak baliogabetzea .....	17
4.1. Fakturaren egoera kontsultatzea .....	17
4.2. Faktura baliogabetzea .....	23

## Ilustrazioen aurkibidea

Ziurtagiria hautatzea .....	7
Atariaren hasierako pantaila .....	8
Sistematik irteteko botoia .....	8
Sistematik irtetea berresteko leihoa .....	8
Atarian saioa hasteko leihoa .....	9
Fakturak igo: lasterbidea .....	10
Fakturak igotzeko erlaitza .....	11
Internet Explorer nabigatzailearen bidez xml formatuan bidali beharreko faktura hautatzea .....	<b>¡Error! Marcador no definido.</b>
Fakturak Igo aukerako elkarrizketa-koadroa .....	12
Faktura igotzea berresteko mezua .....	12
Atariak egiten dituen egiaztapenak .....	13
Faktura behar bezala igo dela dioen mezua .....	<b>¡Error! Marcador no definido.</b>
Faktura erregistratu izanaren egiaztagiria .....	14
Faktura igotzean izandako erroreaz jakinarazten duen mezua .....	15
Hornitzailearen fakturen zerrenda .....	17
Fakturak eguneratzeko botoia .....	18
Bidalitako fakturen iragazketa eta sailkapena .....	19
Igorritako fakturaren xml-a ikusteko esteka .....	19
Bidalitako fakturaren XML fitxategia irekitzea .....	20
Bidalitako fakturaren XML fitxategia .....	20
Bidalitako faktura jaso izanaren agiria ikusteko esteka .....	21
Bidalitako egiaztagiriaren PDF fitxategia zabaltzea .....	22
Faktura bat hautatzea .....	23
Faktura baliogabetzeko botoia .....	23
Faktura zergatik baliogabetu behar den zehaztea .....	23
Faktura bat baliogabetzeko prozesua hastea berresteko mezua .....	24

## 1. Sarrera.



### Osakidetzaren Fakturazio Elektronikoen Plataforma

*Osakidetzaren Fakturazio Plataformak aukera ematen du formatu digitaleko fakturak bidali eta jasotzeko Osakidetza/Osateken eta haren hornitzaileen artean, indarrean den legedia betetzeko.*

*Legedi horrek ezartzen duenez, 2015eko urtarrilaren 15etik aurrera ondasun-eta zerbitzu-hornitzaileek formatu elektronikoa bidali beharko dizkiete fakturak Administrazio Publikoei, haien entitateei eta haiei lotuta edo haien mende dauden erakundeei.*

*Erabaki horrek ez die eragiten 5.000 eurotik beherako fakturei; horregatik, igorleak nahi duen formatuan bidali ahal izango dizkio Osakidetzari: paper-formatuan edo formatu elektronikoa.*

*Hala, bada, 2015eko urtarrilaren 15etik aurrera, enpresek formatu elektronikoa erabili beharko dute Osakidetzari 5.000 eurotik gorako fakturak bidaltzeko, beste edozein formatu ez baita baliozkoa izango.*

Faktura elektronikoa honako modu hauetan aurkeztu ahalko dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren sarrera-puntu nagusian:

- a) **Eskuz**, Osakidetzaren web-atariaren bidez, fitxategi bat edo gehiago batera igoz.
- b) **Automatikoki**, web-zerbitzuetako interfazeen bidez ezarritako komunikazio-sistema baten bitartez, zeinak aukera ematen duen faktura elektronikoa automatikoki bidaltzeko hornitzaileak fakturak kudeatzeko erabiltzen duen sistematik.

Osakidetza-Euskal osasun-zerbitzuak fakturazio elektronikorako egindako web-atariaren erabiltzailearen esku-liburu hau Osakidetzaren hornitzaileei eta Zerbitzu Erakundeei zuzendua dago.

Web-atariak aukera ematen die hornitzaileei fakturazio elektronikoen plataformarekin elkarreraginean aritzeko, Interneteko nabigatzaile baten bidez (adibidez: Google Chrome), ziurtagiri elektronikoa onartu baten bitartez konektatuta. Honako hauek egiteko aukera ematen du plataformak:

- Fakturak igo
- Fakturen zerrenda eta xehetasunak ikusi
- Faktura baliogabetzeko eskatu

Esku-liburua honako atal hauetan banatua dago:

1. **Sarrera:** sarreratxo batean, hartzaileei buruzko informazioa azaltzen da, bai eta dokumentuaren edukiari eta helburuei buruzkoa ere.
2. **Web-atarirako sarbidea:** web-atarira sartzeko mekanismoa aurkezten da.
3. **Fakturak igotzea:** azaltzen da nola bidali faktura elektronikoa bat Osakidetza/Osatekera web-atariaren bitartez.
4. **Bidalitako fakturen zerrenda ikustea:** atal honetan, azaltzen da nola ikus ditzakeen hornitzaileak bere fakturen zerrenda eta egoera web-atariaren bitartez.

## 2. Web-atarirako sarbidea

Osakidetza/Osateken fakturazio elektronikoaren web-atarira sartzeko, Interneteko nabigatzaile estandar bat erabili behar da, helbide honetan sartuta: <https://fakturae.osakidetza.net>.



### **Nabigatzaile bateragarriak**

*Hona hemen Osakidetza/Osateken fakturazio elektronikoaren web-atariarekin bateragarriak diren nabigatzaileak:*

- **Internet Explorer** nabigatzailearen 9. bertsioa edo goragokoa
- **Google Chrome**: bertsio guztiak
- **Mozilla Firefox**: bertsio guztiak

Atarira sartzeko, **ziurtagiri elektronikoa onartu bat behar da, izan pertsona fisikoarena, pertsona juridiko baten ordezkari den pertsona fisiko batena edo pertsona juridikoarena** (HAP/1074/2014 Agindua 3. artikulua 3. puntua).




### Ziurtagiri digitala

*Ziurtagiri digital batek modua ematen du herritarren, enpresen edota erakunde publikoen arteko komunikazioen isilpekotasuna bermatzeko, komunikazio-sare irekien bidez bideratzen direnean.*

*Atarira sartzeko balio duten ziurtagiriak edo horrelakoak eman ditzaketen erakundeetako batzuk hauek dira: DNla, Camerfirma, FNMT, Izenpe...*

Kontuan hartzekoa: **atarira ziurtagiria erabiliz sartzan saiatu aurretik, ziurtagiriak nabigatzailean instalatuta egon behar du, dagokion fitxategia inportatuta.** Ziurtagiri bat baino gehiago badaude instalatuta, horietako bat hautatu beharko da:



### **Ziurtagiria hautatzea**

Behin autentifikatuta, atariaren **hasierako pantailara** iritsiko da erabiltzailea:




### *Atariaren hasierako pantaila*

Sistematik ateratzeko, botoi bat dago pantailaren goialdean, eskuinean, atarira sartzeko erabilitako IFZ ageri den lekuan:



### *Sistematik irteteko botoia*


Atariak unean uneko ekintza berresteko eskatzen du:



### *Sistematik irtetea berresteko leihoa*

**Orri honetatik atera aukera hautatuz gero**, atariaren hasierako orria azalduko da; bertatik, aukera dago berriro sartzeko, **Saioa hasi ziurtagiriaren bidez** aukeran klik eginda.






*Atarian saioa hasteko leihoa*

### 3. Atarira fakturak igotzea

**Fakturak igo** erlaitzetik, atariaren erabiltzaileek aukera dute Osakidetza/Osateki fakturak bidaltzeko.


Fakturak atarira igo aurretik, plataformatik kanpoko sistema batek eginak egon behar dute (Adb. Fakturak egiteko aplikazio batek), Legeak agintzen duen formatuan (Facturae 3.2) eta estandarrean nahitaez bete behar diren gutxieneko eremuak beteta.

Horretarako, kanpoko doako aplikazioak daude, esate baterako, Industria, Energia eta Turismo Ministerioarena, eskuragarri honako helbidean: [www.facturae.gob.es/formato/Paginas/descarga-aplicacion-escritorio.aspx](http://www.facturae.gob.es/formato/Paginas/descarga-aplicacion-escritorio.aspx). Halaber, sortutako faktura elektronikoa balioztatzeko eta bistaratzeko tresnak helbide honetan ematen dira: [www.facturae.gob.es/formato/Paginas/utilidades-online.aspx](http://www.facturae.gob.es/formato/Paginas/utilidades-online.aspx).




#### **Fakturak igo: lasterbidea**

Fakturak plataformatik kanpoko sistema batean egina egon behar du (adibidez, fakturazio-aplikazio batekin). Facturae formatuan egin ondoren, **Nabigatu** botoiaren bidez, faktura bat edo gehiago hauta daitezke atarira igotzeko, erabiltzailearen nabigatzailearen bertsioaren arabera.



**Fakturak igotzeko erlaitza**

Nabigatu izeneko botoian klik eginda, Windowseko arakatzaillearen leiho bat irekiko da, bidali beharreko faktura hautatzeko.



**Internet Explorer nabigatzailearen bidez xml formatuan bidali beharreko faktura hautatzea**

Zabaldu botoian klik eginda, atariko *Fakturak Igo* aukerako elkarrizketa-koadroan agertzen da artxiboa:




*Fakturak Igo aukerako elkarrizketa-koadroa*

Jarraian, botoi honetan klik egin behar da: 



Mezu bat agertuko da, erabiltzaileak faktura atarira igo eta, beraz, Osakidetza/Osatekera bidali nahi duela berrets dezan.



*Faktura igotzea berresteko mezua*

Hornitzailearen IFZ/IFK ez baldin badator bat atarira sartzen den erabiltzailearekin, fakturak ezin izango dira ikusi.

Atarian aztertu egiten da faktura, zenbait gauza egiaztatuz:



Gero, pantaila bat azalduko zaio erabiltzaileari, egindako ekintzaren emaitzarekin, eta jakinaraziko zaio ea faktura behar bezala igo den:



The screenshot shows a web interface with a dark header containing navigation links: INICIO, MIS FACTURAS, and SUBIR FACTURAS. Below the header, the page title is 'Subir Facturas'. A green instruction reads: 'Para subir varios archivos, mantenga pulsado control (Ctrl) y realice las selecciones necesarias.' There is a text input field and a 'Navegar...' button. Below that is a button with an upload icon and the text 'Subir Facturas'. The main section is titled 'Resultados de la subida' and contains a table with a 'Logs' tab. The table has three columns: 'Factura', 'OK', and 'Detalles'. One row is visible with the file name 'T01\_5109892421.xml' and a green checkmark in the 'OK' column.

Factura	OK	Detalles
T01_5109892421.xml	✓	

**Faktura behar bezala igo dela dioen mezua**

Baldin eta faktura, behar diren egiaztapenak pasatuta, atarian erregistra badaiteke, **erregistro administratiboko** zenbaki bat esleituko zaio, eta, horrela, faktura bidalia izan dela egiaztatzeko agiria deskargatu ahal izango du erabiltzaileak ataritik.

**Justificante de registro. A00000000000015**

ro  
iboko  
ia

NIF / CIF del emisor.	92920000
Número de la factura.	23
Nombre/Razón social del emisor.	92920000T
CIF del destinatario.	A01126309
Fecha de expedición.	2014-12-10 00:00:00.0
Fecha de registro.	2014-12-18 16:32:09.696
Oficina contable destinataria.	A16007512 - OSATEK, S.A.
Organo gestor destinatario.	A16007512 - OSATEK,SA
Unidad tramitadora destinataria.	A16007512 - OSATEK,SA
Importe de la factura.	4030
Firmante de la factura.	SERIALNUMBER=92920000T, SURNAME=FICTICIO ACTIVO, GIVENNAME=CIUDADANO, CN=CIUDADANO FICTICIO ACTIVO, DNQ=-dni 92920000T, OU=Herritar ziurtagiria - Certificado de ciudadano, OU=Ziurtagiri onartua - Certificado reconocido, C=ES
Estado.	Registrada en RCF
Comentario/Detalle.	

**Faktura erregistratu izanaren egiaztagiria**




## Atariak egindako egiaztapenak

Osakidetza/Osateken Fakturazio Elektronikoaren Atariak honako egiaztapen hauek egiten ditu jasotako fakturaren gainean:

- Atarira sartzeko ziurtagiri balioduna (DNle, Izenpe, FNMT...).
- Faktura [Osakidetza/Osateken DIR3etara](#) zuzendu da.
- Legeak agindutako formatua (Facturae 3.2), estadarrean nahitaez bete beharreko eremuak gutxienez beteta.
- Igorlearen sinadura baliozkoa da faktura bidaltzeko.
- Identifikazio fiskaleko zenbakia (Erreferentzia) hornitzailearen IFZ/IFK berarentzat, atarian erregistratu gabea.

Okerren bat izan bada, aldiz:



**Faktura igotzean izandako erroreaz jakinarazten duen mezua**

Horrez gain, faktura elektronikoaren fitxategian informatua badago (1.4.2.2.5.4 eremua, ElectronicMail), mezu elektronikoa bat bidaliko zaio erabiltzaileari, azaltzeko zergatik ezin izan den faktura erregistratu.



### **Fakturekin batera eranskinak igotzea**

*Fakturekin batera bidali nahi diren eranskinek FacturaE formatuak horretarako ematen duen elementuaren barnean egon behar dute (3.1.9.2.1 eremua, Attachment), eta Base64 formatuan kodetuta.*

*Gomendagarria da eranskinek ez izatea 15 Mb baino gehiago.*

Faktura atarira behar bezala igorri ondoren, erabiltzaileak haren izapidetze-egoeraren berri izan ahalko du unean-unean, **Nire fakturak** erlitzaren bidez.




## 4. Fakturen zerrenda eta fakturak baliogabetzea

### 4.1. Fakturaren egoera kontsultatzea

Atariak aukera ematen dio erabiltzaileari Osakidetza/Osatekera bidali dituen faktura elektronikoko guztiak ikusteko, faktura elektronikoen sarrera-puntu nagusiaren bidez.


Horretarako, **Nire fakturak** erlaitzean sartu beharko du; bertan, hornitzaile bakoitzak modua izango du kontsultatzeko zer faktura bidali dituen berak. Hau da, **hornitzailearen IFZ eta atarira sartzeko ziurtagiriaren IFZ bat datozenean soilik ikusi ahal izango fakturak:**



The screenshot shows the 'MIS FACTURAS' interface. At the top, there are navigation links: INICIO, MIS FACTURAS, and SUBIR FACTURAS. Below this is a table of invoices with columns: Id Factura, Número registro ad..., Fecha Registro, Oficina contable, Órgano Gestor, Unidad Tramitadora, Fecha de pago, Importe, Estado, and Estado de anulación. One invoice is visible with ID 23 and a state of 'Registrada en RCF'. Below the table, there is a detailed view of an invoice with a status of 'Rechazado'. A callout box points to the 'Rechazado' status, and another callout box points to the 'Motivo de rechazo' field, which is currently empty. The interface also shows a search bar with the number '92920000T' and a refresh button.

#### **Hornitzailearen fakturen zerrenda**

Faktura bat edo gehiago igo ondoren nabigatzen jarraituz gero, beharbada beharrezkoa izango da **Fakturak eguneratu** botoia sakatzea, hornitzaileari dagozkion faktura guztiak behar bezala ikusi ahal izateko:




### ***Fakturak eguneratzeko botoia***

Igorritako faktura bakoitzean, **honako informazio hau azaltzen da:**

- **Fakturaren id.:** fakturari dagokion zerga-identifikadorea (saila-zenbakia).
- **Erregistro administratiboko zenbakia:** aurkeztutako fakturari esleitutako erregistro administratiboko zenbakia.
- **Erregistro-data:** faktura atarira behar bezala igo den eguna eta ordua.
- **Kontularitza-bulegoa:** Osakidetza edo Osatekeko DIR3 kodea.
- **Erakunde kudeatzailea** Zerbitzu erakunde edo ESKo zentro hartzailearen DIR3 kodea.
- **Unitate izapidegilea:** Zerbitzu erakunde hartzailearen DIR3 kodea.
- **Ordainketa-data:** ordainketaren transferentzia egiteko agindu den eguna.
- **Zenbatekoa:** Fakturaren zenbatekoa guztira, eurotan.
- **Egoera:** adierazten da zer egoeratan dagoen bidalitako faktura une jakin horretan. Horren barruan, egoera hauetan egon daiteke: *Erregistratua, FKEn erregistratua, Betebehar onartua kontabilizatua, Ordaindua, Ukatua, Baliogabetua.*
- **Baliogabetze-egoera:** hornitzaileak Osakidetza/Osateki faktura bat baliogabetzeko eskatzen dionean, baliogabetze-egoeran geratzen da. Horren barruan, egoera hauetan egon daiteke: *baliogabetzea eskatu gabe, baliogabetzea eskatua, baliogabetzea onartua, baliogabetzea ukatua, **Baliogabetzeko egoera kenduta. ERNE!!!***
- **Ukatzeko arrazoia:** adierazten du zergatik ukatu duen hartzaileak faktura.
- **XML esteka:** XML dokumentu jatorrizkorako esteka.

- **Jaso izanaren agiria:** jaso izanaren agiria PDF formatuan deskargatzeko esteka.


Aurreko eremu horietako bakoitzari dagokionez, posible da fakturak gorako edo beherako ordenan sailkatzea, edo duten balioaren baten arabera iragaztea.



The screenshot shows the 'MIS FACTURAS' interface. At the top, there are navigation links: 'INICIO', 'MIS FACTURAS', and 'SUBIR FACTURAS'. Below this, there's a section for 'Facturas' with buttons for 'Actualizar facturas' and 'Anular'. A table lists invoice details with columns: 'Id Factura', 'Número registro ad...', 'Fecha Registr...', 'Oficina contable', 'Órgano Gestor', 'Unidad Tramitadora', 'Fecha de pago', 'Importe', 'Estado', and 'Estado de anulación'. A dropdown menu is open over the 'Oficina contable' column, showing options: 'Clasificar en orden ascendente', 'Clasificar en orden descendente', and 'Filtro'. The table contains one row with the following data: Id Factura: 23, Número registro ad...: A00000000000015, Fecha Registr...: 2014/12/18 16:32:09, Órgano Gestor: A16007512, Fecha de pago: 4030, Estado: Registrada en RCF, Estado de anulación: No solicitada anulación.

### *Bidalitako fakturen iragazketa eta sailkapena*


Igorritako fakturaren datuak XML formatuan ikusi nahi izanez gero, klik egin [XML](#) estekan:



The screenshot shows the 'MIS FACTURAS' interface. At the top, there are navigation links: 'INICIO', 'MIS FACTURAS', and 'SUBIR FACTURAS'. Below this, there's a section for 'Facturas' with a table. The table has columns: 'Tramitadora', 'Fecha de pago', 'Importe', 'Estado', 'Estado de anulación', 'Motivo de rechazo', 'Link XML', and 'Acuse de Recibo'. A row is highlighted with a blue background, and a mouse cursor is clicking on the 'Link XML' column. A speech bubble points to the 'Link XML' column with the text 'raren jia'. The table contains one row with the following data: Tramitadora: 2, Fecha de pago: 4030, Importe: Registrada en RCF, Estado de anulación: No solicitada anulación, Motivo de rechazo: Acuse de Recibo, Link XML: XML, Acuse de Recibo: Acuse de Recibo.


### *Igorritako fakturaren xml-a ikusteko esteka*

Behean, fakturara sartzeko botoi bat agertuko da:




### Bidalitako fakturaren XML fitxategia irekitzea

Bertan klik eginda, erlaitz bat agertuko da nabigatzailean, fakturaren datuekin:




### Bidalitako fakturaren XML fitxategia

Saguaren eskuineko botoiarekin "Gorde helburua honela" aukeran klik eginda, XML fitxategia deskargatu daiteke.



Atariak aukera ematen du faktura bidali izanaren egiaztagiria deskargatzeko; bertan, besteak beste, honako datu hauek azalduko dira: fakturari esleitutako erregistro administratiboko zenbakia eta faktura bidali zen eguna eta ordua.


Horretarako, [Jaso izanaren agiria](#) izeneko estekan sakatu behar da:



Emisora	Fecha de pago	Importe	Estado	Estado de anulación	Motivo de rechazo	Link XML	Acuse de Recibo
2		4030	Registrada en RCF	No solicitada anulación		XML	<a href="#">Acuse de Recibo</a>

### ***Bidalitako faktura jaso izanaren agiria ikusteko esteka***

Behean, egiaztagirira sartzeko botoi bat agertuko da:



**Bidalitako egiaztagiriaren PDF fitxategia zabaltzea**

Botoian klik eginda, PDF dokumentu bat irekiko da, faktura bidali izanaren egiaztagiriaren datuekin:

**Justificante de registro. A00000000000015**


tro  
tiboko  
ia

NIF / CIF del emisor.	929200001
Número de la factura.	23
Nombre/Razón social del emisor.	92920000T
CIF del destinatario.	A01126309
Fecha de expedición.	2014-12-10 00:00:00.0
Fecha de registro.	2014-12-18 16:32:09.696
Oficina contable destinataria.	A16007512 - OSATEK, S.A.
Organo gestor destinatario.	A16007512 - OSATEK,SA
Unidad tramitadora destinataria.	A16007512 - OSATEK,SA
Importe de la factura.	4030
Firmante de la factura.	SERIALNUMBER=92920000T, SURNAME=FICTICIO ACTIVO, GIVENNAME=CIUDADANO, CN=CIUDADANO FICTICIO ACTIVO, DNQ=-dni 92920000T, OU=Herritar ziurtagiria - Certificado de ciudadano, OU=Ziurtagiri onartua - Certificado reconocido, C=ES
Estado.	Registrada en RCF
Comentario/Detalle.	

## 4.2. Faktura baliogabetzea


Web-atarian, erabiltzaileek aukera dute Osakidetza/Osatekera bidalitako faktura bat baliogabetu dezatela eskatzeko.

Horretarako, lehenik, baliogabetu nahi den faktura hautatu behar da, faktura horri dagokion ilararen hasieran klik eginda:




*Faktura bat hautatzea*

Behin faktura hautatuta, **aukera dago hura baliogabetu dezatela eskatzeko (baldin eta ez badago ordaindua jadanik)**, botoi honen bidez:



*Faktura baliogabetzeko botoia*


**Baliogabetu** jartzen duen botoian sakatzean, leiho bat azalduko da, eta baliogabetzea eskatzeko arrazoia emateko eskatuko zaio erabiltzaileari:



*Faktura zergatik baliogabetu behar den zehaztea*

Horren ondoren, fakturaren egoeraren arabera, egiaztatuko da ea posible den hura baliogabetzea (adibidez, faktura ordaindua badago edo dagoeneko baliogabetze-

eskaera bat egina badago, ezin da eskatu baliogabetzeko). Posible baldin bada, beste leiho bat agertuko da, baliogabetzeko eskaera hori berresteko:



***Faktura bat baliogabetzeko prozesua hastea berresteko mezua***

Ondoren, Osakidetza/Osatekek eskaera balioztatu edo ukatuko du, erabakiaren berri dagokion moduaren bidez emanda.